

Kolonbiari buruzko jardunaldiak gaur abiatuko dira Algortan

Urriaren 17ik 29ra Kolonbiari buruzko jardunaldiak izango dira Algortan. Ekitaldiak gaur bertan hasiko dira, 'Amazonia: Tradizioa eta modernitatea' erakusketaren eskutik. Horren bidez jendea sentsibilizatu nahi dute antolatzaileek Amazonas eskualdeko errealitatearen inguruan. Argazkiak eta Brasilen eta Kolonbiaren arteko mugan bizi den Ticuna herri indigenak eginiko eskulanak egongo dira ikusgai, Algortako kultur etxean, Villamonten. Horretaz gain, 'Volver a nacer' dokumentala proiektatuko dute gaur toki berean, 19:00etan, sarrera dohainik. Union Patrioticaren historia aztertzen du filmak. Kolonbiako gobernuak eta FARCEk 1984. urteko su-etena adostu ondoren agertu zen talde hori, gatazkari irtenbide baketsua emateko asmotan. Proiektzioa amaitu eta gero, foruma hasiko da ikusleak filmaren gaiaz mintza daitezen.

Ekimenak Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuaren 'Liburutegiak, topaleku' programa barnean dago eta honako hauek ditu helburu nagusiak: hainbat udalerritan presentzia handia duten immigrante kolektiboen kultura zabaltzea eta azken hauei zenbait euskal udalerrietako liburutegi zerbitzuak ezagutzera ematea. Aurreko urteetan Bolibia eta Filipinak izan ziren jardunaldien ardatza eta aurten kultura kolonbiarra izango da erabateko protagonista. Getxoko udal liburutegien eta Immigrazio Arloaren eskutik hainbat jarduera izango dira jardunaldietan.

Hamahiru egunetan zehar, tailerrak, zine-forum saioak, erakusketa, hitzaldia, ipuin kontaketa eta dantzak izango dira, besteak beste. Jarduera horiek guztiak zenbait kolektibok bultzatuta daude, esaterako, Kolektiba Colombia, Justicia por Colombia Elkarte, Emigrad@s sin Fronteras, ASHISLAMA eta ASOCOLVAS.